



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

**Ostirala
2008-12-12**

VIURTEA 1.582 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Datorren astelehenetik aurrera bialak bi noranzko izango ditu

TOLOSA Kolektorearen lanak amaitu arte izango da; aparkaleku plazak kendu eta Rondillan 50 egokituko dira

APARKALEKU BERRIA Bizilagunak eta kanpotarrak Lapurdi plazako aparkalekua erabiltzera animatu dituzte 4-5



Fierro, Calderon eta Ceberio, III. Jardunaldiaren aurkezpena. I. GARCIA

Etorkinaren Egunaren harira, egitarau oparoa antolatu du Ereitek

TOLOSA III. Jardunaldiak dira aurtengoak eta bihartik hilaren 20ra bitarte iraungo dute 3

Mikel Markezek kontzertua eskainiko du gaurkoan, Gurea aretoan

VILLABONA 'Zure begiek' bere azken diskoa aurkeztuko du, 22:30ean 3

Bengoetxea VI. eta Abel Barriola altxorraren bila txapelketa berri batean

LEITZA 'Basquepensiones BBK II. Masters' lehiaketan ariko dira 7



Joni Ubeda, Joserra Senperena eta Imanol Ubeda atzoko aurkezpena. R. CALVO

ZUZENEKOA IZANGO DU BIDE ERTZEANEK 6



OSTIRALA
Abenduak 12
22:30ean

Villabonako Gurea Antzokian

Z Zurea da hitza

Atal honetan zuen kexak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldekohitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailez, 'tolosaldean@tolosaldekohitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.



Urdelar biltokian bildu ziren herriko helduenak. HITZA

Herriko helduenen bazkaria

Joan den abenduaren 8an, urteroko legez, meza entzun ostean, bazkaltzera bildu ziren herriko per-

tsona helduenak Urdelar Biltokian. Guztirahogeitahamalaupertsona. Omenaldi txiki bat ere eskaini zitzaion aurreko urtetan bazkaria prestatzen zuten lau emakumei. Bazkaloste ederra

absolutoa daukatela, zergatik ez dute mozio hori aurrera eramaten? Garai hartan, esan zuten, berriaz ere herri galdeketa bultzatuko zutela, herriak erabaki zezan. Zergatik ez dute herri kontsulta hori bultzatzen?

Patxi Saenz Lazkano

Zaindu errepideak mesedez

Susto ederra hartu nuen atzokoan, etxera bidean nindoala. Tolosan lana bukatu eta Anoetara joateko autobia hartu nahi nuen. Berazubitik Amarotzko errotondara bidean, Yurreamendi egoitzaren sarreraren parean, sekulako zuloa dago errepidean. Kotxearenkin bete-betean sartu nintzen eta eskerrak ez zitzaizkan ezer pasa...

Ahalik eta azkarren konpontzea eskatuko nuke, nahiko leku txarra da eta zuloan errezt sartzen zara, konturatzerako kotxea izurratuko du. Hortik pasa dienak konturatuko ziren...

Aprobetxatu nahi nun ebai jakiteko ea egia den biala bi norabide-tan jarri behar dutela. Zerbait entzun det eta jakin nahi nun ea hola den. Nire ustez oso gaixki dago orain, autobia atera behar delako Tolosan bertan mugitze-ko.

Miren.

Urdelar biltokia (Elduain).

Nafarroaren Egunarekin batera ikurriña Leitzako udaletxean zintzilik

Aurreko legealdian ezker abertzaleko kideek, orain ANV ordezkartzen dutenak, ikurriña kendu zenean, mozio bat aurkeztu zuten ikurriña udaletxean modu iraunkorrean mantentzeko. Garai hartan ez zen onartu. Orain gehiengo

H Hilberria**XABI OLANGUA BEZGA**

'Pitxorras'



«... Adios maitia, adios laguna etorri da urrun joatea...
baina, ere, agian,
berri, ikustea...»



Azken Portuko lagunak

Oharra: Azken agurreko ekitaldia gaur, ostirala, arratsaldeko 18:30ean burutuko dugu, Getaria bidean lehenengo tunelaren parean.

ZARAUTZ
2008ko abenduaren 12a

IÑAKI ZURUTUZA AIERBE

Herenegun hil zen, 56 urterekin.
G.B.



Inazio Mari karnetan baina guztiontzako ihaki birinduzale amorratua pilotaz ere bahekin aio esateko astirik gabe joan haizela ba al dakik txotx garaiak hortxe zeukeagu falta haizela nahiz jakin basoa hartu ta joango gaituk kupelera elkarrekin.



Senitartekoak

ATAUN
2008ko abenduaren 12a

Haren animaren alde otolitz bat eskatzen dizuet eta arren etor zaitezteza GAUR, OSTIRALA, arratsaldeko SEI ETAN, SAN GREGORIO elizan, gorpua bertan dela egingo den hiletara. Eskerrik asko guztio aldeaz aurretik.

Helbidea: Arratiñea baserria. Oharra: gorpua Beasaingo Golerri Bellatokia ingongo da.

IÑAKI ZURUTUZA AIERBE

Herenegun hil zen 56 urterekin.
G.B.



Txo, hirekin pasatu zetuagu hamaika une gozo. Eskerrik asko.

Hireko adirila



ATAUN
2008ko abenduaren 12a

IGNAZIO ZURUTUZA AIERBE

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai hauts hartatikan uste gabeen noizbait ginaden guz ernai.



LAB-CAF Sail Sindikala

BEASAIN
2008ko abenduaren 12a

Mª JESUS IZAGIRRE ITURRIOZ

Estizabalgo inguruneak gaude ilun eta triste zuhaitz, lore, txoriak mutu batza negar mailko baten gure arbasoen lur emankorra duzunez landu ta maite bere besotan gordeko zaitu goxo, ziur egon zaite.

Adiorik ez, Maria Jesus.

Aitor eta Maiderren lagunak



IBARRAN
2008ko abenduaren 12an

MARIA JESUS IZAGIRRE ITURRIOZ

ANDREA

'Amona Maxux'

Abenduaren 10ean hil zen, 66 urte zituela.

-Goian bego-

Baserriko sukaldetan su goxoa itzali zaigu baina gure bihotzetan loratutako su txinpartak itzali ezinak dira maitasunez ta esker onez

Bere senarra: Esteban Garmendia; seme-alabak: Miren Edurne (+), Aitor eta Maider Aramendi; bilobak: Manex eta Irati

GAUR OSTIRALA, arratsaldeko ZAZPI ETAN, Ibarroko SAN BARTOLOME parroki elizan egingo den hiletara gonbidatzen

Helbidea: Estizabal baserria

zaituztegu. Aldez aurretik, mila esker.



IBARRAN
2008ko abenduaren 12a

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala Tolosa (Bellatokia)

Egitarau oparoa antolatu du Ereite elkarteak Etorkinaren Egunaren inguruan

Gizartea » III. Jardunaldiak dira aurtengoak eta ekitaldiak bihar hasi dira eta hilaren 20ra arte iraungo dute.

IMANOL GARCIA

Hilaren 18an da Etorkinaren Egun eta horren inguruan Ereite Elkartek Multikulturalak III. Jardunaldiak antolatu ditu. Egitarau oparoa osatu dute bihar hasi eta hilaren 20a arte. Atzo egin zuten aurkezpene Ereiteko Miren Ceberio, Rita Calderon eta Rosalia Fierro.

Ereiteko kideek azaldu dutenez, hainbat helburu dituzte Jardunaldiak. Alde batetik, etorkinen parte hartzea sustatzea. Bestetik, komunitate kultural desberdinen arteko ezagutza erraztea eta baita herritarrok orokorrean sentsibilizatzeko, kultur aniztasunaren aberastasunean zein etorkinen eta hauen jatorrizko herrialdeetako errealitatearen inguruan. Jardunaldiak ere espazio publikoetan presentzia

gutiago duten errealitate kulturalak ikusgarri egitea dute helburu. Azkenik, etorkinei protagonista aktiboak izateko espazioak eskaintzea eta kulturarteko ohiturak sustatzea.

Aretoa futboleko II. Adiskidetasunaren Txapelketa, Dauri Alcalá margolariaren *Dibertsitateak* erakusketa, Abdoulaye Gueye abokatuaren hitzaldia atzeritar legearen inguruan, zine forum proiektuak 14 kilometros filmarekin, ipuin kontalaria, Ipuinartean sormen tailerrak eta munduko musika jarririko duten DJak dira antolatutakoak. Hori guztia antolatu dute Jardunaldien baitan. Bide batez, aurkezpenean eskerrak luzatu dizkiete antolakuntzan lagundu duten hainbat erakunde eta elkar-terti.

Egutegia eta azoka

Ereite 2009ko egutegia atera du. Bertan, hilabete bakoitzarekin elkarteko kideak diren argazkiak azaltzen dira eta baita herrialde ezberdinetako errezetak ere. Hila-

ren 20an Tolosan egingo den Gabonetako Azokan Ereite postu bat izango du eta bertan erosi ahaliko da 5 euroren truke. *Ipuinartean* liburuak ere salgai izango dira eta Mexikoko saltsa tipikoak erosteko aukera ere izango da.

» EGITARAUA

Abenduak 13, bihar

■ 14:00-20:00. II. Adiskidetasunaren Txapelketa, Tolosako Uzturpen eta Usabalen.

Abenduak 14, etzi

■ 09:00-13:00. II. Adiskidetasunaren Txapelketaren final-laurdenak Ibarako Belabietan.

■ 17:00. II. Adiskidetasunaren Txapelketaren final-erdia Tolosako Hirukide-Eskolapiotan.

Abenduak 15, astelehena

■ 17:00. Dauri Alcalá margolari dominikararen *Dibertsitateak* erakusketa irenburuaz. Tolosako kultur etxean, astelehenean ostirala 17:00etatik 21:00etara



Fierro, Calderon eta Ceberio, III. Jardunaldien aurkezpenean. I. GARCIA

eta larunbatean 09:00etatik 14:00etara.

Abenduak 17, asteazkena

■ 19:00. Solasaldi informatiboa: *Atzeritar legea eta bestelako en-lantzak argitzeko espazioa*, Tolosako kultur etxean. Hizlaria: Abdoulaye Gueye Caritas Gipuzkoako abokatua.

Abenduak 18, osteguna

■ 19:30. Zine Forum proiektioa. Gerardo Olivaresen *14 kilometros* filma.

Abenduak 19, ostirala

■ 17:30. Idoia Sanchez ipuin kontalariaren emanaldia Sartu Ta Sor-

tu arte tailerrean, Tolosako kale Nagusian.

■ 18:00. Ipuinartean sormen tailerrak Naiara Delgado eta Txitxi Orbegozorekin, Sartu Ta Sortu arte tailerrean.

Abenduak 20, larunbata

■ 10:30. II. Adiskidetasunaren Txapelketaren 3. eta 4. posturako partida eta finala Tolosako Usabalen.

■ 11:00-13:00. Ipuinartean sormen tailerrean egindako lanen erakusketa. Sartu Ta Sortu arte tailerrean, Tolosako kale Nagusian.

■ 23:00. DJ-ak munduko musika dantzatu eta ondo pasatzeko, Txanpa eta Iratxo tabernetan.

KZgunean hainbat ikastarotari izena doan emateko aukera

Anoeta » Gimp, Internet eta E-Administrazio ikastaroak egin ahal izango dira; izena eman daiteke hilaren 19a arte.

ERREDAKZIOA

Anoetako KZgunean Gimp, Internet eta E-Administrazio ikastaroak antolatu dituzte doan. Beste ikastaro motzak ere antolatu dituzte, gai desberdinetakoak, ordu-bete edo bi ordu ingurukoak.

Udaletxean, kiroldegian edo KZgunean eskura daiteke informazio gehiago ikastaro hauei buruz. Interesa duenak parte hartzeko izena leku horietan eman dezakete hilaren 19a arte.

Abenduko ordutegia

KZguneako ordutegia abenduan goiz izango da. Horrela, astelehenean ostirala 10:00etatik 14:00etara egongo da irekita. Horrez gain, Anoetako Udaletik azaldu dute hilaren 22tik aurrera itxita egongo dela KZgunea. Berritoki irekiko dituzte KZgunearen ateak urtarilaren 7an.

Mikel Markez, entzuleak kantatzen jartzeko gogoz

Villabona » Musikiariak kontzertua emango du gaur 22:30ean Gurea aretoan, 'Zure begiek' bere azken diskoa aurkeztuz.

I. GARCIA

Mikel Markez zaleek eskualdean berritoki entzuleko aukera izango dute. Gaur egingo du emanaldia 22:30ean Gurea aretoan eta sarre-rak 7 euro balioko ditu, bost euro gazte txartela duenarentzat. Musikiariak atera duen azken diskoa aurkeztu du, *Zure begiek* izenekoa, bere kantagintza bilduma. Markez azaldu duenez, bere helburua «entzulegoarekin komunikazioa lortzea da». Eta helburu hori betetzen da garbi jendea abesten hasten denean. Metafora erabili du hori erakusteko: «Itasontzia portura iristen denean, bere lana egin eta marinela guztiak onik daudenean».

Zure begiek emanaldiarekin kontzertu dezente egingo ari da eta

oso gustura daude jendeak ematen ari den erantzunarekin. Markez dioenez, «zuzenekoak sendotzen joan da». Horrela, musikariak «beste askatasun batekin jotzen dute, letzari edo partiturari hainbeste begiratu gabe». Orain buruz jotzen dituzte abestiak eta hori nabaritzen da emaitzean.

Mikel Markez gitarra eta perkusioa jotzen du, ahots nagusia izateaz gain. Berarekin batera aritzen dira Pello Ramirez biolentxela eta akordeoiarekin eta Joseba Loinaz pianoa jotzen.

Urte batzuk horrelako emanaldirik egin gabe izan da Mikel Markez. Pako Aristirekin hainbat proiektutan aritu da denbora horretan, beste beste. Orain berritoki bere kantuekin kontzertuak egitea gustura hartu duen ekimen izan da eta, esan bezala, jendea gustura hartzen ari da bere kantuek berriz entzutea.

Gaurko emanaldian ere gogoz aterako da, jendea gustura gelditu dadin eta ea animatzen den berarekin abestera. Komunikazioa lortu duenaren seinale.



Mikel Markez abeslaria, emanaldi batean. HITZA

HITZA lanpostua

irutxuloko HITZak

KAZETARIA BEHAR DU

Eskatzen da:

- Euskarazko kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

Curriculum Vitae zehatza bidali abenduaren 20a baino lehen: donostia@irutxulokohitza.info edo deitu 943-46 72 36 telefono zenbakira



Joserra Senperena, Joni Ubeda eta Imanol Ubeda CD eta DVD berriaren aurkezpenean, atzo, Koldo Mitxelena kulturunean. R. CALVO

Bide Ertzean talde tolosarrak ere izango du zuzeneko diskoa

Tolosa » Urtarrilaren 16an Leidorren izango den kontzertua grabatu eta CDa kaleratuko du boskoteak datorren urtean.

REBEKA CALVO

Musika talde guztiek izaten duten nahia omen da eta Bide Ertzean taldeari ere iritsi zaio unea. Zuzenekoaz arigara, datorren urtarrilaren 16an egingo dutena. Etxean, Tolosan, egingo dute, Leidor antzokian, 22:00etan, eta bertan azken bost urteetan eta hiru diskoetan aritu den boskotea izango da taula gainean: Karlos Aranzegi, Fran Iturbe, Joserra Senperena, Imanol Ubeda eta Joni Ubeda.

10 urtetako ibilbidea

Bide Ertzean taldeak hamar urte betetzen ditu aurten eta urteurrena behar bezala ospatzeko modua ere bada zuzenekoaren grabaketa.

1998 eta 2008 urte bitarteko kantuen errepasoak egingo dute ordu eta laurden inguruko kontzertuan. «25 bat kantu prestatu ditugu, baina seguruenak ez ditugula guztiak joko», esan zuen Joni Ubeda taldeko baxu-jotzaileak Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean egindako agerraldian.

Talde «bizia» osatzen dutela argitu zuten aurkezpenean, eta ondorioz, kantu berririk ere izango da kontzertuan, nahiz eta hamar urteko ibilbidean jotako kantuek izango duten pisu gehien. Hori bai, kantu zaharrek «aire berria» izango dute Imanol Ubeda gitaristak esan zuenez: «Kantuak berrikusi egin ditugu, berriz ere sentitu nahi izan ditugu». Era berean, musikariak jotzen ari diren bitartean hainbat bideo proiektio tartekatuko dituztela ere argitu zuten.

Ikuskizun borobila eskainiko dute hortaz, eta ez hamar urtetako ibilbidearen errepaso bideo proiektzioen laguntzarekin egingo

dutelako, «taldearen gorputz eta armia izan zirenak berriro elkarrekin taula gainean» izango direlako baizik.

Joserra Senperena pianista ere gerturatu zen Koldo Mitxelena eta zuzeneko nola grabatuko duten azaldu zuen: «Zuzeneko grabatzeko bi modu daude; gira bat egitea eta bertan kontzertuetako bat grabatu eta diskora eramatea, edo zuzeneko disko berri bat baltitz bezala prestatzea. Guk bigarrenkoa aukeratu dugu eta horregatik ari gara berriz ere kantuak entseatzeko, berriak izango balira bezala. Egitura, instrumentazioa... aldatzen ari gara kantuak berritze-ko, nolabait».

«Garai bateko diskoetan bezala»

Zuzeneko lanaren grabaketa «garai bateko diskoetan bezala egingo» dutela ere argitu zuen pianista donostiarrak; «klaketarik -metronomorik- gabe, nahasketa prozesuan ezerrez berriz ere grabatu

gabe, gonbidaturik gabe... Protagonista nagusia banda izango da», gaineratu zuen Senperenak.

Urtarrilaren 16an izango den zuzeneko joateko sarrerak datorren astelehenean, hilak 15, jarriko dituzte salgai Tolosako ohiko saltokietan zein www.kutxa.net, Servikutxa eta Telekutxa zerbitzuen bidez 10 euroren truke.

CDa datorren urtean kaleratuko dutela ere argitu zuten, nahiz eta ezin duten oraindik data zehaztu. Gaztelupeko Hotsak zigiluak plazaratuko du lana (orain arteko sei diskoak bezala; *Bide Ertzean*, *Zure Minari*, *Grisa*, *Maite Out*, *Esan Bare* eta *Non dira*) eta, betiko moduan, Kaki Arkarazok zuzenduko du audioa.

Dokumentala

Bestalde, Bide Ertzeaneko kideek DVD bat ere kaleratuko dutela esan zuten.

DVDa dokumental baten modukoa izango da, hau da, Leidorreko kontzertuaz gain elkarriketa ugari ere ikusi eta entzun ahal izango dira; «taldekideak eta taldekide ez direnak gure ibilbideaz hitz egingo dute».

DVD dokumentalaren gidoia egiten ari dira oraindik eta Raul Lopez hernaniarrak zuzenduko du. Zuzendari gaztea Modus Operandi zine produktorako kidea da eta, besteren artean, *Lucio* filman hartu du parte. DVDa ere Gaztelupeko Hotsak zigiluarekin kalera- tuko dute.

Herriko gazteen Pilota Txapelketako finala izango da etzi

Ibarra » Belabietan izango da binakako finala larunbatean 15:30ean; afaria eta Mojito Gauda ere antolatuta dituzte.

ERREDAKZIOA

Ibarrako gazte talde batek antolatutako Pilota Txapelketako finala etzi izango da. Hilabeteak daramatzate partidak jolasten eta azkenean garaipena Montxito-Gorka Goikotxeandia eta Pendor-Igartuaren artean egongo da. Partida Belabietako frontoian izango da 15:30ean.

Afaria eta parranda

Finala eta gero, gainera, afaria ere antolatuta dute, bertan parte hartzeko izena Atari tabernan eman behar delarik. Afaria 20:30ean izango da. Txapelketa ondoko bukatzeko, gainera, Mojito Gauda ere izango da Gaztetxean.

Laburrak

Bigarren Mailako Lau T'erdiko finala, etzi

TOLOSA » Etzi jokatu dute Aratz Mendizabalek eta Mikel Olaetxea lizartarrak Bigarren Mailako Lau T'erdiko finala. Hitzordua Tolosako Beotibarren izango da 17:00etan. Asegarcek esandakoa- ren arabera, sarrerren salmenta oso ondo doa eta frontoia betet- zea ere espero dute. Kantxako besaulkietako sarrerak 30 euro balio du eta erreboteak 15 euro.

Santanderreko Peñucas taldearen aurkako partida

IBARRA » Ibarrako Lauburu taldea Santanderren ariko da etzi, Peñucas taldearen aurkako partida du eta 17:00etan Eloy Villanueva ki- roldegian. Txubel entusurzaileak jokalaria guztiak dituen eskuragai, David Prados kenduta, izan ere etxe- an jokatuak azken partidari joko- laria zigortu egin zuten eta ezingo ditu ondorengo hiru partidak joko- tu.

Aurrera-Saiazen Probintzialeko partidak

IBARRA » Probintzialeko partidak egongo dira gaur eta bihar. Gaur- koak 19:00etan hasiko dira Ibarra- ko frontoian eta Aurrera-Saiazeko taldeak ariko dira. Bihar Aurrera- Saiaza eta Arrasatekoek jokatu- ko dute partida 10:30ean. Bukatzeko, Aurrera-Saiaz Gaztelekuren kon- tra ariko da.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Txakurkumeak.** Gorbea arraza- ko txakurkumeak salgai, oso arra- za onekoak. Gurasoak lanean. In- teresatuak deitu 609 223 857 te- lefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Mer-

kea. Obra egin behar da. Interesa- tuerk deitu 657 230 011 edo 634 919 482 telefonoetara.

LANA

■ **Abeslaria.** Erromeri eta ezkon- tza talde batek abeslaria behar du. 658 701196.

@ **Eztabaida.** HITZAren web gunean zeuen iritziak emateko aukera izango duzue. Orain- goan haxe da proposatzen zai- zuen eztabaidarako gaia; Villabo- nan emakume batek 3.000 euro aurkitu zituenn eta Udaltzaingora eraman zituen jabeak diru hori be- rreskuratzeko. Zurea ez den dirua aurkituko bazenu, bueltatuko al zenuke? Kopuruak baldintzatzen al du dirua itzultzeak?:

www.tolosaldekohitza.info



Olaizola II.a, Irujo, Bengoetxea VI.a, Barriola eta Gonzalez Masterraren aurkezpenean. Aurkezpenen ez egon arren, Olaizola I.ak ere parte hartuko du. HITZA

Altxorraren bila sei pilotari Barriola eta Bengoetxea VI.a tartean direla

Leitza » Bihar hasiko dute 'Basquepensiones BBK II. Masters' lehiaketa; Frontoi osoan eta buruz burukoan arituko dira pilotariak.

ASIER IMAZ

Maila goreneko pilota profesionalak ez du etenik, ondorioz, Abel Barriolak eta Oinatz Bengoetxeak ere ez dute jairik edukiko.

Datorren urtea hastean ekingo diote Binakako Txapelketa nagu-

siari, baina 2008a ganoraz agurtzeko, *Basquepensiones BBK II. Masters* lehiaketa jokatu dute bihartik aurrera.

Leitzarrekina batera, frontoi osoan buruz burukoan, Olaizola anaia, Juan Martínez de Irujo eta Sebastian Gonzalez ariko dira. Masterraren irabazleak 18.000 euro irabaziko ditu eta bigarrenak 12.000 euro.

Iragan urtean hasi ziren Asegarceta eta Aspe pilota enpresak Master berezi hau antolatzen. Mementokosei pilotari onenek, euren ustez-

ko onenek, hilabete batean jokatzeko, *Basquepensiones BBK II. Masters* lehiaketa hau. Iaz, finala Aimar Olaizolak eta Patxi Eugik jokatu zuten. Goizuetarrak 22-6 irabazi zion erretiratu berri den Aoizko (Nafarroa) pilotariari.

Bihar eta etzi final-laurdenak

Masterra bihar jarriko dute martxan Bengoetxea VI.ak eta Gonzalezek Iruñeko Labriten.

Bigarren final-laurdena etzi jokatu dute Barriolak eta Olaizola I.ak Eibarko Astelena pilotalekuan.

Labriteko irabazlea Irujoren aurka neurtuko da aurreneko finalerdian, abenduaren 20ean. Eibar-ko garailea berriz, Aimar Olaizola-aren aurka, hilaren 21ean lehiatuko da. Azkenik, finala hilaren 27an jokatu dute.

Arauetan berrikuntza bat

Antolatzaileek aurtengoan berrikuntza bat sartu nahi izan dute arauetan. Sakea pasa egiten duen pilotariak, ez du bigarren sakerik edukiko, bere aurkako tanto izatera pasako baita.

'Geurea ikurrina' lelopean ekitaldi nazionala egingo dute bihar Leitza

A. IMAZ

Bai Euskal Herriari ekimenak deialdi berezi bat egin die inguruko herritarrei, «erasoen aurrean, geurea defendatzera» bihar Leitza-ara ager daitezzen eskatuz. Egunguztiaz zehar jai giroa egongo da.

» EGITARAUA

Abenduak 13, bihar

- **11:00.** Harrera ekitaldia: irrintzi-lariak, dantzariak...
- **12:00.** Herri kirolak.
- **12:00.** Txekorra burduntzian egin eta pintxoak jateko aukera.
- **13:00.** Manifestazioa eta ondoren ekitaldia Udaletxearen aurrean. Joaldunek eta dantzariak ireki dute martxa.
- **14:30.** Herri bazkaria.
- **Ondoren.** Ansa ahizpak.
- **17:30.** Patxi eta konpainiarekin dantzaldia eta errormeria.
- **20:00.** Kale animazioa: erraldoi, buru handi eta trikitaliariak.
- **Gauean.** Kontzertuak.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 652339

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarralde. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Iruja. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Erakusketa eta kontzertua aukeran

LEITZA » *Euskaraz Bai* erakusketak gaur itxiko ditu ateak. Hiru egunetan eduki dute zabalik Kontseiluaren inguruko erakusketa Leitza-ko udaletxearen bilkura aretoan. Atzokoan Amazaben Institutuko DBH 4. mailako ikasleak egon ziren bertan. Gaur, azken aldiz, 18:00etatik 19:00etara zabalduko dute herritarrentzat. Kontseiluaren 10. urteurrenaren ibilbidea

ikusteaz gain, erakusketak gogora ekartzen du bihar Barakaldoko (Bizkaia) BECen egingo den ekitaldia. Honekin batera, ezin aipatu gabe utzi, Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak antolatutako duen Kultur Elejiraren baitan, Joseba Irazoki musikari beratarak gaur 22:00etan Leitza-ko Gaztetxean emango duen kontzertua. ASIER IMAZ

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialea: 687 410 034. alegialea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalea: 687 410 118. leitzalea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak
S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai
Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Alegia.** Ping pong txapelketa Gaztetxean, XXI. Urteurrenean. Izena emateko, momentuan bertan.
- **Berastegi.** Bigarren eskuko azokarako materiala (arropa, jostailuak, liburuak, CDak...) Erretoretxera eraman beharko dira 16:30etik 18:00etara. Lortzen den dirua helburu solidario baterako izango da.
- **Tolosa.** Ziklomotoaren inspektzioa egingo dute Ferialekuan hilaren 15ean eta 16ean, 10:00etatik 14:30era, 22 eurotan. Aurretik txanda eskatu behar da Udaltzaingoan (943 675858).
- **Tolosa.** Lizardiko eskopetariaren afaria bihar Maite Amonarriz kapitaina omentzeko eta agurtzeko. Izen-ematea, 699 551765 telefono zenbakian.
- **Zizurkil.** Erremonte partidak In-txaur frontoian 12:00etan: Etxabe II.a eta Zubizarreta Ibarzabal eta Baleztenaren aurka; eta Zeberio II.a eta Aizpurua II.a Arteaga eta San Miguelen aurka.

Mend

- **Tolosa.** Beasain-Mantxinbenta mendi ibilaldia antolatu du Alpino Uzturre elkarteak 21erako Usurbe (707 m) eta Murumendi (859 m) mendiak igoz. Urteko azkena denez, babarrun jatea ere izango da. Izen-ematea, elkartearen (943 652789).
- **Villabona.** Irumugarrieta (1.427 m) mendira irteera antolatu du Aizkardi elkarteak 21erako. Izen-ematea, elkartearen.

Erakusketa

- **Zizurkil.** Felix Iñurrategi Fundazioko argazki erakusketa Atxulondon.
- **Tolosa.** Juan Jose Agirre Aizpurua margolariaren oleak ikusgai Aranburu Jauregian.

Eskalada eta txirrindularitza kirol asteetan

TOLOSALDEA Kultur asteak igaro ziren eta orain, nonbait, kirol asteen txanda da. Hala ari dira egiten Anoetan eta Zizurkil. Lehenengoan, txirrindularitzari buruzko mahai-ingurua egin zuten atzo udal areto nagusian. Abraham Olano anoetarra aritu zen beste hainbat txirrindulariekin batera (Itxaso Leunda, Josu Agirre, Leire Olaberria eta Oxel Leunda). Gaurkoan, pilota jokoak eta gomazko paletako pilota partidak aurreikusi dituzte. Zizurkil, berriz, ikus-entzunezkoa izan zuten atzokoan, Edurne Bereziarturen *Bide berriak. Ilusio berriak*, hain zuzen ere. Gaurkorako ere hamabi orduz kirolean izeneko maratona antolatu dute. 16:00etan ekingo diote haurrentzako jokoekin. Haltero filia, harri-jasotzaileak, afaria eta gau krosa ere izango dira. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke 21:30etik aurrera, 5 euroren truke. Helduak, gazteak eta haurrak lehiatuko dira bertan. Ikuskizuna ziurtaturik dago. I. GARCIA



A Agurrak



Urte askoan!

Jokin Oñsal Oñamendi (Tolosa). Muxu handi bat zure guraso eta Ainhoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberriak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behe
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

txokoa **h**



BRUESA GBC
Pamesa Valencia

IGANDEA

ABENDUAK **14-12:30**

ILLUNBE

Sarrera pareira
zozketatu dugu!



irabazlea:
• Igone Lasa
(Ibarra)

HITZAren harpidedunentzat abantailak

Sarrerak HITZAren Tolosako bulegoan izango dituzue!